




Eraikuntzaren kostuak nabarmen igo dira

Eraikuntzaren kostuen indizea

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.


Apirilean, eraikuntzaren kostuak %7,ora igo ziren Euskadin, urte hasierako erregistroen gainera.

Igoera hori orokorra izan zen, eraikuntzan %7,0ko eta obra zibilean %6,7ko aurrerapenak izan ziren, eta lan eskuan, berriz, %4,7koa. Bestalde, lehengaiak %7,8 hazi ziren, eta horiek dira oraindik ere gorakadaren faktore nagusia, koke-lantegiak eta petrolioaren fintzea bezalako adarren hazkunde handiek markatutako testuinguru batean.

Etxebizitzaren gaineko hipotekak %12,3 jaitsi ziren martxoan

Etxebizitzaren gaineko hipotekak

Urte bakoitzeko martxoan




Iturria: INE.

INERen arabera, martxoan etxebizitzaren gaineko hipotekaren sinadurak urte arteko %12,3ko beharakada izan zuten, eta hiru hilabetez jarraian behera egin zuten. Zehazki, 1.919 hipoteka eratu ziren. Bestalde, hipoteka horietan emandako kapitala ere murriztu egin zen, baina apalago, 354,3 milioi eurora iritsi arte, %0,7 gutxiago.



Azalera handietako salmentak %1,0 gutxitu dira

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko apirila. Indizea




Iturria: Eustat.

Apirilean, Euskadiko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %1,0 jaitsi ziren urte batetik bestera, gainerako produktuetan izandako %3,3ko jai-tsierak eraginda. Elikadura, aldiz, egonkor mantendu zen, enplegua- ren urte arteko atzerakadaren tes- tuinguruan (%1,0). Hileko termino- etan, salmentek %0,5eko igoera txikia izan zuten, baina enplegua %0,2 murriztu zen.

Txikizkako merkataritzaren salmentak hazi egin dira

Txikizkako merkataritza Euskadin
Urte bakoitzek apirila. Indizea



Iturria: INE

INEren azken datuen arabera, **Eus- kadiko txikizkako merkataritzaren salmentak %2,7 gehitu ziren apiri- lean, aurreko urteko hilabete beraren aldean.** Hau hilabete horretara- ko erregistrorik onena da 2012tik. Bestalde, sektoreko enplegua ia egonkor mantendu zen, urte arteko %0,1eko jaitsiera txikiarekin.